



**EBAZPENA, 2020KO EKAINAREN 8KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, COVID-19REN AURREAN JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA DESESKALATZEKO PLANAREN 3. FASEA AKTIBATZEN DUENA.**

---

Maiatzaren 8ko JUS/394/2020 Aginduak, Laneko Segurtasunaren Eskema eta COVID-19ren aurrean Justizia Administrazioarako Deseskalada Plana onartzen dituenak, ezartzen du Justizia Administrazioaren ohiko jarduerara itzultzea, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 521. artikuluan ezarritako destino-zentroetan zerbitzua ematen duten eta aplikazio-eremuan dauden langileen aurrez aurreko zerbitzuan hastea jarraikako lau fasetan egingo dela. 2020ko maiatzaren 26tik aurrera, aktibo dago aipatutako Deseskalada Planaren 2. fasea.

COVID-19ren aurkako borrokaren egungo egoeran banakako eta taldeko segurtasun-neurriak mantentzen diren arren, kutsatzeen ondorioen kontrolean aurreikus daitekeen eta nahi den aurrerapenari esker, Deseskalada Planean aurreikusitako 3. fasea aktibatzea ahalbidetzen du, destino-zentro bakoitzeko langileen % 100era iritsi arte.

Horregatik guztiagatik, honako hau

**EBAZTEN DUT**

**Lehena.- Deseskalada Planaren 3. Fasea**

Euskal Autonomia Erkidegoan aktibatzen da maiatzaren 8ko JUS/394/2020 Aginduaren II. eranskinean ezarritako COVID-19ren aurrean Justizia Administrazioarako Deseskalada Planaren 3. fasea. Agindu horren bidez, Laneko Segurtasunaren Eskema eta COVID-19ren aurrean Justizia Administrazioarako Deseskalada Plana onartu ziren, 2020ko ekainaren 9tik aurrerako ondorioekin.



### **Bigarrena.- Nahitaezko betebeharretarako baimena**

Langile guztiek zerbitzuaren beharriaz eta prestasunari duten loturari kalte egin gabe, hala eskatzen zaienean, Justizia Administrazioari agindutako zerbitzu publikoak emateko prest egon beharko dute. Hala ere, nahitaezko betebeharretarako baimena duten administrazio honetako funtzionario guztiek 3. fase berrian indarrean jarraituko dute, 2020ko ekainaren 21era arte, izan ere, orduan azkenduko dira ondorioak.

### **Hirugarrena.- Bereziki sentikorrek diren langileak**

Prebentzio Zerbitzuko arlo medikoak COVID-19ren eraginpean egotearen arriskuarekiko bereziki sentikorra dela aitortu dituen langileak, osasun-agintarien jarraibideen arabera, beren lanpostura itzuli beharko dira 2020ko ekainaren 22an, salbu eta Prebentzio Zerbitzuak bere lanpostua egokitzeko neurriak ezarri baditu, hala badagokio, langilearen osasun-izaeraren berezko arriskua handitu gabe lana egiteko aukera ematen duten baldintzak, baldintza horiek hartu ez badira.

### **Laugarrena.- Baimenak eta lizentziak**

Langile publikoen gainerako baimenek eta lizentziek (horien artean, berariaz, opor-egunak, norberaren gauzetarako egunak eta norberaren aukerako egunak) beren eraginkortasunari eta horiek sortzeko irizpideei eusten diete.

### **Bosgarrena.- Arratsaldeko txanda ezartzea**

Destino-zentro berera joan behar duten langile guztiek ezin badituzte bermatu lanpostuei dagozkien eginkizunak aldi berean betetzeko segurtasun-neurriak, arratsaldeko txandak ezarriko dira, maiatzaren 8ko JUS/394/2020 Aginduaren III. eranskinean ezarritako baldintzetan.



Destino-zentro bakoitzean, zerbitzuak aurrez aurre ematen dituzten funtzionarioen kopuruak zerbitzua osasun-agintariek gomendatutako segurtasun-distantzia gordez betetzea ahalbidetzen badu, ez da arratsaldeko txanda gaituko.

Zenbait destino-zentrotan ezinezkoa denez langileen artean segurtasun-distantzia hori mantentzea, beharrezkoa da arratsaldeko txandak ezartzea eranskinean jasotzen diren organo eta bulegoetan.

#### **Seigarrena.- Prestasuna arratsaldeko txandetan**

Era berean, bulego edo organo batean goizeko eta arratsaldeko txandak ezartzen badira, baina langile guztiak prest ez badaude, lehenik eta behin goizeko txanda osatuko da erabilgarri dauden langileekin, eta gainerako langileak arratsaldez joango dira, hala badagokio.

Edozein arrazoiengatik arratsaldeko txanda betetzeko prest dagoen funtzionariorik ez badago, organo edo bulego horretako langileek 7 ordu eta 30 minutuko ordutegia egin beharko dute.

#### **Zazpigarrena.- Txandak antolatzea**

Maiatzaren 8ko JUS/394/2020 Aginduak ezartzen duen bezala, arratsaldeko txandetan parte hartzea borondatezkoa izango da, eta, halakorik ez badago, organo edo zerbitzuko langileen artean txandakako nahitaezko txanda ezarri ahal izango da. Azken kasu horretan, txandak, ahal den neurrian, langileek beren lanpostuan bete ahal izateko moduan antolatuko dira.

**Zortzigarrena.-** Ebazpen honek sinatzen den egunetik izango ditu ondorioak.

**Bederatzigarrena.-** Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioko Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 8a

  
M<sup>a</sup> Isabel Gabriel Bellido  
**JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA**

  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
AN ETIA JUSTIZIA SAILA  
DEPARTAMENTO DE TRABAJO  
JUSTIZIA



## ERANSKINA

Lurralde historikoa	Barruti judiziala	Organoa edo bulegoa	Pertsonak goizez	Pertsonak arratsaldez
ARABA	VITORIA-GASTEIZ	ZULUP Arlo-zibila 1	3	2
		ZULUP Arlo-zibila 2	2	2
		ZULUP Arlo-zibila 3	2	2
		ZULUP Arlo-zibila 4 (familia)	3	2
		ZULUP Arlo-zibila 5	4	1
		ZULUP Arlo-zibila 6	2	2
		ZULUP Arlo-zibila 7 (merkataritza)	3	3
		ZULUP Arlo-zibila 8 (familia)	4	2
		Erregistro Zibila	11	2
		ZULUP Instrukzioa 1	4	3
		ZULUP Instrukzioa 2	5	2
		ZULUP Instrukzioa 3	4	3
		ZULUP Instrukzioa 4	4	3
		Indarkeriaren aurkako taldea	5	3
		ZULUP Lan-arloa 1	2	2
		ZULUP Lan-arloa 2	2	2
		ZULUP Lan-arloa 3	2	2
		ZULUP Lan-arloa 4	3	1
		ZULUP Administrazioarekiko auzia 1	2	1
		ZULUP Administrazioarekiko auzia 2	2	2
		ZULUP Administrazioarekiko auzia 3	2	1
		ZERBITZU PROZESAL ERKIDE OROKOR.		
		Erregitroen eta Banaketen Atala	7	4
		Bestelako Zerbitzuen Atala	36	8
		BETEAPEN. ZERB. ERKIDE PROZESALA		
		A Atala (zibila, familia, merkataritza, lan-arloa, administrazioarekiko auzia)	22 *	18
		B Atala (instrukzioa, zigor, indarkeriaren aurka eta auzitegia)	11*	6

\*Kudeatzaile arduraduna barne.

Lurralde historikoa	Barruti judiziala	Organoa edo bulegoa	Pertsonak goizez	Pertsonak arratsaldez
---------------------	-------------------	---------------------	------------------	-----------------------

<b>BIZKAIA</b>	<b>GETXO</b>	ZULUPak Zigor-arloa (1. solairua)	8	6
		ZULUPak Arlo-zibila (2. solairua)	8	7

	<b>BARAKALDO</b>	Zigor-arloko Taldea	6	5
		Instrukzioa ZULUP 1	5	4
		Instrukzioa ZULUP 2	5	2
		Instrukzioa ZULUP 3	4	3
		Instrukzioa ZULUP 4	4	3
		Indarkeriaren aurkako taldea	4	3
		BETEARAPEN. ZERB. ERKIDE PROZESALA		
		Arlo-zibila Atala	16*	8
		Zigor-arloko Atala	8	8
		ZERBITZU PROZESAL ERKIDE OROKOR.		
		Erregitroen eta Banaketen Atala	4 (+1 guardian)	2
		ZULUPak Arlo-zibila 1etik 6ra	8	6

	<b>BILBAO</b>	JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIA		
		Lan-arloko Sala	10 + 3 laguntzaile	2
		Administrazioarekiko auzien Sala	20 + 4 laguntzaile	7
		Gobernu-idazkaritza	10	3
		PROBINTZIA AUZITEGIA		
		2. Atala	6 + 1 laguntzaile	2
		5. Atala	5 + 1 laguntzaile	2
		Lehen auzialdiako epaitegia 2, 3, 4, 5, 6, 11 eta 12	4 + 1 laguntzaile	3
		Lehen auzialdiako epaitegia 11 zenb. bis	5	4
		Lehen auzialdiako epaitegia 14 zenb.	6 + 1 laguntzaile	7

\* Kudeatzaile arduraduna barne.



Lurralde historikoa	Barruti judiziala	Organoa edo bulegoa	Pertsonak goizez	Pertsonak arratsaldez
---------------------	-------------------	---------------------	------------------	-----------------------

<b>BIZKAIA</b>	<b>BILBAO</b>	1 zenb. Instrukzio-epaitegia	8 + 1 laguntzaile	1
		2 zenbaitik 4 ra Instrukzio-epaitegiak	4 + 1 laguntzaile	4 + 1 laguntzaile
		5 eta 6 zenb. Instrukzio-epaitegiak	8 + 1 laguntzaile	1
		7 zenb Instrukzio-epaitegia	7 + 1 laguntzaile	2
		8 zenbaitik 10era Instrukzio-epaitegiak	4 + 1 laguntzaile	4 + 1 laguntzaile
		7 zenb. Zigor-arloko epaitegia – betearazpenak	24 + 3 laguntzaile	13
		Lan-arloko Epaitegiak 1 zenbaitik 10era	4 + 1 laguntzaile	2
		1 zenb. Merkataritza-arloko Epaitegia	4 + 1 laguntzaile	3
		2 zenb. Merkataritza-arloko Epaitegia	4 + 1 laguntzaile	3

<b>GIPUZKOA</b>	<b>AZPEITIA</b>	ZULUP 1	4	3
		ZULUP 2	6	2
		Zerbitzu Erkide orokorra	4	3

	<b>IRUN</b>	Erregistro Zibila	3	1
		Betearazpen. Zerbitzu Erkide Prozesala	12 (+ 1 guardian)	1
		Zerbitzu Prozesal Erkide Orokorra	7 (+ 1 laguntzaile guardian)	4

	<b>DONOSTIA-SAN SEBASTIAN</b>	ZULUP Zibila 3	3	2
		Erregistro Zibila 11 (+1 laguntzaile)	11 (+1 laguntzaile)	2
		Adingabeen Taldea	3	2



		Indarkeriaren aurkako taldea	5	4
		BETEARAPEN. ZERB. ERKIDE PROZESALA		
		A Atala (zibila, familia, merkataritza, lan-arloa, administrazioarekiko auzia)	29 (+ 1 San Martinen)	13

## BULEGO FISKALA

Lurralde historikoa	Barruti judiziala	Organoa edo bulegoa	Pertsonak goizez	Pertsonak arratsaldez
ARABA	VITORIA- GASTEIZ	Probintzia Fiskaltza	11	5
BIZKAIA	BARAKALDO	Fiskaltza: Lurraldeko Atala	5	4
	BILBAO	Zigor-arloko Fiskaltza	9	9
GIPUZKOA	DONOSTIA – SAN SEBASTIÁN	Probintzia Fiskaltza	18	9

## AUZITEGI MEDIKUNTZAKO EUSKAL INSTITUTUA

Lurralde historikoa	Barruti judiziala	Organoa edo bulegoa	Pertsonak goizez	Pertsonak arratsaldez
ARABA	VITORIA- GASTEIZ	Zerbitzu Erkide Orokorra	2	1
BIZKAIA	BILBAO	Zerbitzu Erkide Orokorra	14	3